

1. FITXA: Zer dauka zigarro batek?

Tabakoan, 4000 gai inguru aurkitu dira, eta gutxienez horietako 40 kantzerigenoak dira.

ZER DAUKA ZIGARRO BATEK?

Hauek dira zigarroaren kean aurki daitezkeen gai kimikoetako batzuk.





TABAKOAREN OSAGAI NAGUSIAK ETA HAIEN ERAGINAK

Karbono monoxidoa:	Mundruna:	Amoniakoa:	Nikotina:
<p>Ibilgailu edo galdara akastun baten ihes-gas bera da.</p> <p>Kontzentrazio altuetan hilgarria da eta dosi baxuetan zelulen oxigenazioa zailtzen du, hemoglobina blokeatzen baitu eta, ondorioz, hematiek ezin dute oxigenoa eramane denbora-tarte luzeetan.</p> <p>Norbaitek esfortzu fisiko bizia egiten duenean, oxigeno gehiago behar izaten du; hortaz, erretzaileak gehiago nekatzen eta akitzen dira, oxigeno gutxiago baitute.</p>	<p>Kaleak zolatzeko erabiltzen den sustantzia bera da mundruna.</p> <p>Hauek dira haren eraginak: biriketako minbiziak, bronkitis kronikoak, enfisema.</p> <p>Nahikoa oxigenoa hartzea eragozten du, trakearen zilioak geldiarazten ditu eta, hortaz, hauts-partikulak ez dira kanporatzen arnasbideetatik.</p> <p>Mundrunak orbanak sortzen ditu hortzetan eta eskuetako azala zikintzen du, pertsonen kanpo-irudia kaltetuz.</p>	<p>Tabako-industriak amoniakoa gehitzen dio tabakoari nikotinak eragindako mendetasuna handitzeko.</p> <p>Bestelako gai narritagarriak:</p> <p>Erretzaile askok duten eztularen errudunak dira. Gai narritagarri horiek (fenolak, amoniakoa...) bronkioak kaltetzen dituzte. Eta horrek kirola egiteko gaitasuna murrizten du...</p>	<p>“Mendetasuna” sortzeko gai erruduna da, hau da, erretzaileari asko kostatzen zaio erretzeari uztea, eta, tabakoa falta zaionean, oso urduri eta umore txarrez egon daiteke.</p> <p>Nikotinak hodiak uzkuertzeko indarra du; horrek esan nahi du gure zainen eta arterien diametroa murrizten duela.</p> <p>Hortaz, odolak zailago zirkulatzen du gure organismotik.</p> <p>Era berean, arteria-tentsioa handitzen du eta bihotza behartzen du lan gehiago egitera (huraxe da bihotzeko gaixotasunen jatorria).</p>



Jarraian, osatu laukia tabakoaren osaeraren eskemaren informazioarekin:

Sustancia química	USOS
	Azazkalen esmalte-kentzekoaren eta pinturen disolbatzaileen osagai nagusia d
	Errepideak zolatzeko sustantzia beltza.
	Garbitzeko produktuen osagaia: komunak, lurrak, etab.
	Arratizidek duten pozoia
	Plastikoak, lubrifikatzaileak, pinturak, etab. fabrikatzeko da. Gai kantzerigenoa
	Etxeko erregaia (gas-bonbonak)
	Bateriek badute. Gai kantzerigenoa.
	Bakterizidetan, itsasgarrietan, etab. erabiltzen da
	Barbakoak eta parrillak pizteko pastillak.
	Erregai gisa erabiltzen den gasa.
	Suzirien erregaia, pinturen disolbatzailea, autoen izotz-kontrako likidoa.
	Gas pozoitsua, autoen ihes-kean ere dagoena.
	Intsektizida, mendetasuna sortzeko gai erruduna.